

ZALDIBIAKO GUNE ETA ERAIKINEN ERABERRITZEA LANTZEN, 2016

HERRI JARDUNALDIA, 2016-XII-3



Saioaren data: 2016-XII-3

Saioaren lekua: Kultur Etxea

Parte hartzaileak: 34 pertsona. 22 emakume eta 12 gizon.

Udaleko ordezkariak: Joxan Etxabe, Josune Lopetegi eta Estitxu Mujika. Pedro (arkitektoa).

Dinamizatzaileak: Susana Martinez eta Enara Eizagirre

Hasiera ordua: 10:00

Amaiera ordua: 13:30

1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Estitxu Mujika zinegotziak ongi etorria eman die espazio publikoen eraberritzea adosteko Herri Jardunaldira gerturatu diren herritarrei eta gaurko bileraren kokapena egin du.

Udala, bertan dauden bi taldeen adostasunez, Zaldibiako gune eta eraikinen eraberritzea herritarrekin lantzeko partaidetza prozesu bat ari da gauzatzen. Ibilbide honetan, dagoeneko urrats ezberdinak eman dira:

- Batetik, *"Nolako Zaldibia nahi duzu?"* parte hartze prozesua garatu zen, eta bertan, herritar ezberdinen ikuspegiak eta proposamenak landu ziren, lauzpabost gune zehatzen eraberritzea konpartitzen zelarik.
- Aipaturiko hausnarketa horren harira, Udal teknikariek *"Eraikin Publikoei buruzko Ekintza Plana"* izena duen dokumentua sortu dute.
- Sortutako planaren zehaztasunak herritarrekin konpartitu eta lantzeko, 2016 amaieran parte hartze prozesu bat jarri da martxan.
- Horren baitan, azaroan Talde Eragile bat elkartu zen Ekintza Planeko proposamen desberdinen ezaugarri teknikoak aurrez aztertzeko eta Herri Jardunaldia prestatzeko. Ezaugarri eta irizpide desberdinen arabera aukeratutako herritarrek osatu dute talde eragilea.

Bigarren pauso gisa, abenduaren 3an herritar guztiak gonbidatu dira Herri Jardunaldian parte hartzera. Bertan, orain arteko lanketaren nondik norakoak azaldu eta sozializatu nahi dira, eta plaza gunea bereziki zein beste gunek eraberritzeko herritarrek dituzten proposamenak eta lehentasunak identifikatu.

Jarraian, Aztikerreko teknikariek gaurko saiorako helburuak, jarraituko ditugun pausoak eta egingo diren dinamikak azaldu dituzte.

2. ERABERRITZE PROPOSAMENEN AZALPENAK

Pedrok, Zaldibiako arkitektoak, ekintza planean zehaztuta dauden eraberritze proposamenen ezaugarri zehatzak eta aukerak aurkeztu ditu modu zehatzean, partaideen galdera eta zalantzei erantzunez.

Kartulina baten bidez adieraziak egon dira proposamen bakoitzaren ezaugarri teknikoak. Era berean, plaza guneari dagozkion proposamenetan, Talde Eragilean jaso zen balorazioa eta lanketa jaso da, bi aldagairen arabera:

- Proposamen bakoitzak dituen ezaugarriak identifikatu dira kualitatiboki, indargune eta ahulgune eskemaren arabera.
- Proposamen guztien artean zeintzuk hobetsi ziren Talde Eragilean adierazi da grafikoki, modu kuantitatiboan: parte hartzaile bakoitzak bere posizionamendua adierazi zuen bi gometxa jarritz hobesten zuen proposamenean. Hori ere adierazia ekarri da jardunaldira.



Jarraian zerrendatzen dira, guneka, eraberritze proposamenak eta bakoitzaren ezaugarriak, baita Talde Eragilean egindako lanketa ere:

PLAZA GUNEAREN ERABERRITZEA

1. FRONTOIA ESTALI Proposamen honek "historikoa" izan den plazako frontoi osoa estaltzeari erantzuten dio. Berau lehenetsi izan da herritarren artean bere horretan. Honen kudeaketa prozesuak baldintzak sortu ditu: berau aurrera eramateko Elizarekin hitzarmena egin behar da (halabeharrez), kostua esanguratsua duena	Aterpea: 233.391 (bideragarria) Elizarekin hitzarmena (+692.807,05) Guztira: 926.198,05 MUGA: finantzaketa handia behar	
INDARGUNEAK - Espazio estali handiena - Negoziatu deike saloian espazioa estalperako - Frontoia ia osorik estaltzen da, egoki; aterpearentzat toki ideala. - PROPOSAMEN BERRIA: frontoiak duen altueran egin estalkia (ikusmena konpontzen da). - Aukera egokiena, betidanik ezagutu degun gunea; bai jolasteko, jaialdiak, bazakariak-afariak etabar. - Kokapena.	AHULGUNEAK - Kostu handia - Eliza eta ezkerreko etxea itzalpen "ez gustakoa" gelditzen dira - Estali altuegia - Ikusmena galtzen dute inguruko etxeek neurri batean - Kostue	
2. FRONTOI ERDIARI ESTALPE ARINA Proposamen honek "historikoa" den plazako frontoia estaltzeari erantzuten dio. Kasu honetan proposatzen da frontoi erdia estaltzea. Honek aterpe gastua arintzen du. Kasu honetan ere Elizarekin hitzarmena bideratu beharko litzateke, kostua esanguratsua duena	Aterpea: 180.000 inguru (bideragarria) Elizarekin hitzarmena (+692.807,05) Guztira: 872.807,05 MUGA: finantzaketa handia behar	
INDARGUNEAK - Inpaktu bisual gutxiago - Estalpe nahikoa - Ez diogu aurkitzen osoaren ondoan	AHULGUNEAK - Estalki altuegia - Kostu desberdintasunarengatik, hobe frontoi osoa estaltzea - Estetikoki itsusia - Txiki samarra - Kostu oso handia - Etekin gutxi	

3. KULTUR ETXE ZAHARRA BOTA ETA BERTAN ATERPEA ERAIKI Egun kultur etxe zaharra den eraikina bota, eta bertan sortuko litzatekeen eremuan aterpea sortzea aurreikusten du proposamen honek. Aipaturiko eraikina zaharkiturik dago egun, eta bide batez konponbidea emango litzaioke eraikinaren egoerari ere. Eremu publiko da, beraz ez du eskatzen inorekin adostasunik.	Guztira: 392.597 MUGA: finantzaketa behar Artxanberriko zerbitzua aurrez egokitu behar	
<u>INDARGUNEAK</u> - Ez du baldintzatzen udaletxearen arazoa - Eremu publikoa ez dago inoren menpe - Plaza eremua handitu eta aberastu egiten du - Aterpea lortzen da - Aterpea lortzen da	<u>AHULGUNEAK</u> - Ez da leku aproposa, aparte xamar - Eraikin oso bat galtzen da - Lau aldeak irekita - Errepidetik gertuegi - Zerbitzuak galtzen dira eta toki berri bat bilatu behar zaie - Errepidetik oso gertu - Kostua handitzen da - Eraikin bat galtzen da	
4. PARKEA DAGOEN EREMUA ESTALI Egun parkea dagoen eremua estaltzea jasotzen du proposamen honek. Eremua beraren urbanizazioa egingo litzateke eta estalpea. Parkea hortik kentzea ekarriko luke. Eremu publikoa da, beste inorekin negoziatziorik ez. Finantzaketa behar du, baina epe motzeko egikaritzaz luke.	Guztira: 204.246 MUGA: finantzaketa behar	
<u>INDARGUNEAK</u> - Kostue txikie - Haur eta gazteentzako aterpea - Epe laburrean burutzeko aukera - Festetan karpa beharrik ez	<u>AHULGUNEAK</u> - Estetika galera - Parke kendu beharra - Plazaren eremua murriztagoa - Kultur etxearen inguruko hausnarketa eskatzen du - Kultur etxe berria (Karreane) estali egiten du - Atzeko eraikuntzak ezkututzen ditu	
5. JOXEPANE-UDALETXE ARTEKO EREMUA ESTALI Eremu publikoa da, ez du eskatzen beste inorekin adostasunik. Zuhaitzak kendu beharko lirateke kasu honetan. Finantzaketa lortuta, epe motzeko proiektua litzateke, ez bailitzateke faseka egin behar.	Guztira: 231.032 MUGA: finantzaketa behar	
<u>INDARGUNEAK</u> - PROPOSAMEN BERRIA: Olano eta beste etxea erosi eta bota - Bajoak erabili jubilatuentzat - Aterpea egin - Batere ez zaigu gustatzen - Indargunerik ez dugu ikusten	<u>AHULGUNEAK</u> - Estetikoki itusie - Ez da estaltzeko gunea - Argitasun gutxi plazan - Arbolak bota beharra - Ez da leku erabilgarria edozein egunkizunetako - Plazarako sarrera "naturala" oztopatu	
6. KULTUR ETXE ZAHARRA BOTA, BERTAN UDALETXE BERRIA; UDALETXE ZAHARRA BOTA, BERTAN ATERPEA ERAIKI Proposamen honek proiektu ezberdinak jasotzen ditu bere baitan, ikuspegi integral batetik plazaren eraberritze integrala ekarriko lukeena. Horrek, interbentzioak faseka egitea lekarke, ezin baitira aldi berean denak egin. Era berean, "historikoak" diren egin beharrei erantzungo lieke (udala berritu, aterpea...). Eremu publikoa guztia, ondorioz ez du negoziatziorik ez adostasunik eskatzen.	Guztira: 1.995.174 MUGA: finantzaketa behar	
<u>INDARGUNEAK</u> - Estalpea dago - Udaletxe berria - Udaletxe berria - PROPOSAMEN BERRIA: Udaletxe zaharra gizarte zebitzuetarako bideratu (Hogarrra barrue) - Erabilpen anitza - Plaza handitu egiten da - Agian dena batera merkeago, kontuak egin behar - PROPOSAMEN BERRIA: Aterpea -> Udaletxeari lotu nolabait	<u>AHULGUNEAK</u> - Edifizio bat galtzea (zerbitzu publikoak izan daitezke bertan) - Plazaren itxura erabat aldatzen du - Oraingo zaretxeekin ze gertatuko da? - Udaletxe aurreko estalpea itsusia gelditzen da - Zahar etxea erdigunean behar da - Kultur etxeko zerbitzua galtzen da - Kaminua gertugi - Eremu ez egokia - Epe luzearako hipotekatuko litzateke herria - Lau aldeak irekita - Kosto handia kolpetik	

ARTXANBERRIKO LOKALETARAKO PROIEKTUAK

Artxanberriko udal biltegia egina dago, 2015ean Foru Aldundiak hasiera batean frontoia estaltzeko emandako diru-laguntzarekin (frontoia atzeratu zenez, parte hartze prozesuko beste proiektu egingarri eta azkar bat hautatu zen). Udal langileen iritzia kontuan hartuta egin da, gehiena udal langileen bidez gehiena). Lanak ia amaituta daude. Guztira: 72.581,83 500m2 hutsik daude (300 behean, 250 goian inguru) EREIN diru-laguntza eskatu zen erabilera anitzeko gela egokitze 258.947,51	
1. HAUR ESKOLA BERTAN KOKATU Espazioaren dimentsioak aukera ematen du horretarako. Eraikinaren egitura egina dago, eta horrek aurrezten du asko; gainera, obra egin bitartean ez litzateke beste tokirik bilatu beharko. Alabaina, heziketa gunea banatzen da.	Guztira: 262.619,92
2. HAUR ESKOLA EZ KOKATU BERTAN 2014an lehenetsitako beharra (Eskola gunean egingo litzateke orduko hausnarketaren arabera). Horrela, heziketa prozesu dena gune berean kokatuko litzateke. Horrek honako bi proiektu eskatzen ditu (eta obra egin artean beste gune bat egokitzea):	-Haur eskola eraiki: 406.869,76 -Jangela egin: 505.175 Guztira: 912.044,76

ANTZOKIRAKO PROIEKTUA

1. LEKU BEREAN EGOKITU Egun eraikinak dituen hutsune nabariak konpontzeko, hiru fasetan egingo den obra proposatzen da: (1) antzokiko sabaia den terraza iragazgaitzeko obra egingo da; (2) komunak eta aldagelak berrantolatuko dira irisgarritasuna bermatzeko. Komunak sarreran jarriko dira eta baita barra txiki bat ere (oraingo komun tokian, biltegi bat egingo da); (3) areto nagusian isolamendu akustikoa, termikoa eta aireztatzeko sistema jarriko dira	691.249,43
---	--------------------------

ESKOLA GUNeko PROIEKTUAK

2009.urtean eraikin aurrefabrikatu bat egin zen, baina arazoak ditu, bereziki teilatu lauarengatik. 2016an zorua aldatu zen urgentziaz: urki egur kontratxapatua jarri zen (9.645,21€). Estalpea behin-behinean konpontzeko, konponbide arin bat bilatu da: haur-eskolaren alde banatan bi biga metaliko jarri eta lonak zintzilikatu, ur pilaketak eusteko. (14.607,61€) ✓ Lurra + estalpea eginak daude behin-behinean 29.345,91 Aldundiko Lurralde Oreka diru-laguntzetatik 10.231,39€ jasoko dira. Obra 2016ko azaroaren 20rako amaituko da.		
<u>Aurrera begira, 2 proposamen daude:</u>		
HAUR ESKOLAREN KOKAPENA	1.-HAUR ESKOLA+JANGELA BERTAN EGIN 2014an lehenetsia Eskola gunean egingo litzateke orduko hausnarketaren arabera. Horrela, heziketa prozesu dena gune berean kokatuko litzateke. Horrek honako bi proiektu eskatzen ditu (eta obra egin artean beste gune bat egokitzea):	Haur eskola eraiki: 406.869,76 Jangela egin: 505.175 Guztira: 912.044,76
	2.-ARTXANBERRIRA ALDATU HAUR ESKOLA Espazioaren dimentsioak aukera ematen du horretarako. Eraikinaren egitura egina dago, eta horrek aurrezten du asko; gainera, obra egin bitartean ez litzateke beste tokirik bilatu beharko. Alabaina, heziketa gunea banatzen da.	Guztira: 262.619,92
ESKOLA GUNEAN ESTALPEA	1.-LARDIZABAL HERRI ESKOLAKO ESTALPEA EGIN Eskolak U forma du: aldenik alde estalpea egingo da eta eskola sarrera estaliko da. Egurrezko egitura bat litzateke, alboko zutabeetan oinarritua eta polikarbonatoa bezalako material erdi-gardenaz estalia (eskola barrua ez iluntzeko).	154.541,20 (gutxi gorabehera)

3. PLAZA-UDALA-ESTALPEA GUNERAKO AUKERA EZBERDINEN AZTERKETA

Talde Eragileko partaideen bidez, azaroan egindako aurre-hausnarketaren ondorio nagusiak adierazi dira jarraian.

Plaza gunearen eraberritzeari dagokionez Ekintza Planean jaso diren aukeren hausnarketa egin zen Talde Eragilean, eta honako ondorioak atera ziren:

Abiapuntu eta helburuko gogoeta: plaza osoaren eraberritzea izan behar da.

PLAZAREN ERABERRITZEA DEFINITZEKO,

Bi aukera ikusten dira estalpeari dagokionez; eta, bestetik, plazan zehazki eta herrian oro har behar diren zerbitzuen inguruan lanketa egin beharra dago, antolaketa espaziala zehazteko:

ESTALPEA koka daiteke:

- 1.Egungo frontoian
- 2.Egungo udal eraikinaren espazioan

ZERBITZU BEHARREN ZERRENDATA ETA HORIEN KOKAPENA definitu behar da

***Eliza inguruak** ere hausnarketa bat eskatzen du plazaren eraberritzea antolatzerakoan: bertan kokatutako elementua da eta hainbat moldaketa beharrean dago; bestalde, hainbat berritze lan zehazterakoan, inplikaturik dauden elementua da.

Ondorio horien aurrean, hainbat lanketa egin dira maila teknikoan eta Talde Eragileko kideen partetik Herri Jardunaldira proposamen eta aldagai guztiak ahalik eta definituen eramateko.

- ✓ Teknikoki, estalpearen kokapen desberdinek eta plaza eraberritzeko proiektuek izan ditzaketen aukerak eta mugak landu dira.
- ✓ Talde Eragilearen bidez, herritarrek Zaldibian beharrezkoak ikusten dituzten zerbitzuak eta beren kokapen egokiak formulatu eta aztertu dira.

Jarraian adierazten dira bi norabideei dagokienez aurre-lanketan atera diren emaitza nagusiak eta plazaren eraberritzea definitzerakoan aintzat hartzeko aldagaiak:



1. **ZALDIBIAKO HERRIAK BEHAR DITUEN ZERBITZUAK ETA BEREN KOKAPENAK**

Talde Eragileko kideek modu indibidualean baloratu dute Zaldibian zein zerbitzu diren beharrezkoak, eta horietatik zeintzuk egon behar duten plazan. Besteen kasuan, zein gunetan kokatzea hobesten den adierazi dute. Emaizta guztiak bateratuta aztertu dira eta honako emaitza jaso da:

ZERBITZUAK ETA JARDUERAK	KOKALEKUA
UDALA - Bulegoa	PLAZAN
GIZARTE ZERBITZUAK - Hogarra - Berdintasuna eta emakumeen lantzeko zerbitzua	PLAZAN
ADINEKOEN ZAINTZA - Eguneko zentroa - Jangela soziala - Gimnasioa - Pelukeria-barberia - Podologoia, masajista-osteopata - Jarduerak	PLAZAN (ARTXANBERRIN)
KULTURA - Kultur etxea - Liburutegia - Musika gelak	PLAZA-KARREANEN (ARTXANBERRIN)
ERABILERA ANITZEKO ARETOAK	PLAZAN ETA BESTE AHALIK ETA GUNE GEHIENETAN
GAZTERIA - Gazte- lekua - Gaztetxea	BESTELAKO GUNEETAN: Artxanberri, Mediku etxean, Plaza inguruan, Itoitz etxean, dagoen lekuan
HEZKUNTZA - Haur eskola - Jangela	ESKOLAN EDO INGURUETAN (ARTXANBERRIN)
KIROLA	FRONTOIAN EGOKITZAPENEKIN FUTBITO ZELAIA ESTALI

Berdez adierazi dira oro har plazan kokatzea hobetsi diren zerbitzuak. Beste kokapenen bat ere proposatu baldin bada, baina neurri txikiagoan, parentesi artean adierazi da. Aldiz, plaza eremutik kanpo proposatu diren zerbitzuak beltzez adierazi dira.


Era berean, **plazan behar diren guneak/espazioak** ere jaso dira. Honako guneak behar direla plazan aipatu da:

- **Estalpea**
- **Parkea**
- **Gune zabala**
- **Terrazetarako tokia**
- **Frontoia eta kirol espazioa**
- **Udal eraikin berria (Hogarra, udal eta gizarte zerbitzuak, erabilera anitzekoak...)**
- **Kultur eraikinak (espazioa)**

2. ESTALPEAREN ETA UDAL ESPAZIO/ERAIKIN ERABERRITUEN INGURUKO BALORAZIO TEKNIKOAK

Udaleko ordezkari teknikoekin baloratu eta kontrastatu dira estalpea kokatzeko aukera desberdinak eta Udal espazio edo eraikin eraberrituak egiteko aukerak. Honako ondorioak edo emaitzak atera dira lanketa horretatik:

- ✓ **ESTALPEA FRONTOIAN KOKATZEA** aukera bat da oraingoz. Baina kontuan hartzeko elementu bat dago: **Zaldibiako Eliza ondare historiko izendatzeko proposatuta** dago. Hala izendatuko balitz, ezingo litzateke egin eskuhartzerik ez elizan, ezta inguruko eraikinetan ere. Horrek frontoiaren estalpea ezin egin izatea eragingo luke.
 - Egin ahalko litzatekeen interbentzio bakarra elizaren eraikina jatorrizko egoerara itzultzea litzateke: saloiak bota eta bi alboetan estalpeak egitea.
- ✓ **UDAL ESPAZIO ETA ERAIKINAK ERABERRITZECO**, Talde Eragileko kideek planteatutako zerbitzu guztiak barnebilduko lituzkeen eraikin bat honakoa izan daiteke: 19x19 metroko karratua, hiru solairukoa.



Solairuka, honako zerbitzuak koka daitezke:

- **Beheko solairuan:** adinekoen zaintzarako zerbitzuak, taberna-jantokia, komun publikoak, udaletxeko sarrera eta areto balioaniztuna.
- **Lehen solairuan:** udaletxeko arduradun politikoak, artxiboa eta pleno aretoa.
- **Bigarren solairuan:** udaletxeko arduradun teknikoak, idazkaritza eta batzar gelak.

4. ORAIN ARTEKO LANKETAREN INGURUKO ZALANTZAK ETA EKARPENAK

Orain arteko lanketaren aurkezpen ordenatua egin ondoren, herritarrei galderak, zalantzak eta ekarpenak luzatzeko tarteak eskaini zaie. Honako ideiak atera dira:

Ekintza planaren inguruko zehaztapenak eta proposamenak:

- Orain arte egin diren planteamenduetan beste aukera batzuk omitituta edo kontuan hartu gabe gelditu direlako balorazioa egin da. Adibidez, plazaren bueltan, Kultur Etxearen ondoan, hutsik daude etxeak. Horiek erabiltzea aukera bat da.

Erantzuna: Zailtasuna kasu horretan da erosi beharra.

- Hainbat interbentzio dagoeneko araututa daude, norma subsidiarioetan. Horri heldu beharko litzaioke.
- Bi eraikuntza mantendu zitezkeela proposatu zen talde eragilean. Ekarpene hori jaso egin behar da. Eraikin zaharrak mantentzea ere baloratu daiteke.
- Liburutegiari dagokionez, ez dago zerbitzurik edo gunerik 0-8 urte bitarteko haurrentzat. Espazio gehiago behar da.
- Dantzarako gimnasioa: beste gune batean beharko litzateke.

Exekuzio planaren inguruko galderak eta zalantzak:

- Inbertsioaren bolumenaz hausnartu behar da. Zein da benetako ahalmena?

Erantzuna: Urtean 100.000-150.000 eurotako gastua egin daiteke Udaletik. Foru Aldundian esan zen 2016an herri guztietara diru-laguntza egongo zela. Hurrengo urtean herri batzuetan lan mardulagoak egiteko aukera egongo litzateke. Horren zailtasuna da, ordea, proiektu baten beharra dagoela plangintza egiteko.

- Zenbat denboraz egon behar dugu lan horri bideratzen aurrekontuaren zati handi bat?

Erantzuna: Laguntzen arabera dago hori. Interbentzio minimo horiek egiteko, faseka, beharrak detektatu eta finantzazioa kopuru handian izanez gero, 10-15 urtetan egin ahalko litzateke. Zerbitzu guztiak, plantilla... mantenduta, Udalean gisa honetako lanak egiteko sobratzen den inbertsio partida 100.000 inguru izaten da urtero; hori ondoren baldintzatzen da Fondo Foraletik sartu daitekeen aurrekontuarekin.

Elizaren inguruko hausnarketak, negoziaketei eta ondare historiko izendapenari dagozkienak:

- Estalpea ikusten bada garrantzitsua, hortik hasi beharko litzateke eta Elizarekin negoziatzen hasi beharko litzateke ahalik eta azkarren.
 - *Erantzuna: bilera honetan, horren inguruko proposamenaz hausnartzea planteatzen da.*
- Proposamena egiteko hausnarketak:
 - Udaletik egin behar da proposamena.
 - Baina irizpide edo kriterio minimo batzuk atera behar dira bilera honetatik edo herritarretatik. Adibidez, jabetzan ezer ez ematea izan daiteke bat.
 - Erabat gustukoak ez diren aspektu batzuk agian onartu beharko ditugu herriko beharrak asetzeko.
 - Neurrizko gauzak izan behar dute.
- Frontoi irekiak arraroak dira, Eliza ondare historiko izendatu dezakete, baina frontoia bera ere.... Obrak hasi eta arriskua dago abisua iristeko ezin dela jarraitu. Horren gainean erabaki beharko da interbentzioa. Ondare historikoaren izendapena dagoela aintzat hartu eta horren arabera jokatu behar da.
- Elizako eraikina eraberritzerakoan inoiz ez litzateke baztertuko lehengo egoerara bueltatzea (saloiak bota eta aterpeak egin alboetan).
- Beharra da estalpea, baina hori argi izanez gero kokapena gero zehazteko kontua izan daiteke.



5. ESPAZIO DESBERDINEN AZTERKETA

Jarraian, Talde Eragileak lehenetsitako bi norabideetan sortzen diren proiektu desberdinak aztertu eta baloratu dira partaideen artean. Horretarako, partaideak hiru taldetan banatu dira, hiru espazioen inguruko azterketa eta sortzen diren aukeren balorazioa egiteko: udal zerbitzu/eraikina, eliza eta estalpea.

Talde bakoitzak berari egokitutako gunearen inguruko balorazioa egin du aurrez emandako azalpen guztiak eta elementu guztiak aintzat hartuta eta papelografo batean idatzi dira. Ondoren, plenarioan konpartitu dira talde bakoitzean egindako hausnarketak.

Jarraian adierazten dira talde bakoitzean idatzi diren hausnarketak, beltzez; ondoren, plenarioan aurkeztutako ideiak eta jasotako ekarpenak adierazten dira, berdez eta karratuan inguratuta.

1. ESPAZIOA: UDAL ZERBITZU/ERAIKINA

AZALPENA:	BALORAZIOAK (Ekarpenak, hutsuneak...)
Egungo kultur etxe zaharra eta bere hegaleko espazioa erabili.	Berdegunea sortu
Udal bulego eta zerbitzuak (gizarte zerbitzuak barne), hogarra eta erabilera anitzeko gelak sartu	Udalaren kokapenak plazaren eremua eta erabilera baldintzatu
	Udal eraikin BAKARRA - Zerbitzuak - Hogarra eta edadetuak + zerbitzu sozialak - Politikariak eta administrazioa kokatzeko gelak - Ospakizun gela (ezkontzak, hiletak...)
	Musika eskolak, bilera gelak, kutur jarduerak, dantza ... Artxanberrin kokatu.

- ✓ Adostasuna dago honako elementuetan:
 - Udal eraikin bakarra nahikoa da.
 - Zerbitzuak "oraingoan" proposatutakoak egoki.
 - Musika Artxanberrin ondo
 - ✓ Ekarpenak:
 - Udalaren inguruan, toki handi bat egin eta bertan egitea estalpea ondo baloratu da.
 - ✓ Zerbitzuak:
 - Festetako taulatuak ere aintzat hartu behar dira aterpea egiterakoan, bertan bilduko diren zerbitzuak.
 - Maketa bat behar da jendeak irudikatzeko.
- } Planteatuta ondo

2. **ESPAZIOA: ELIZA**

AZALPENA:	BALORAZIOAK (Ekarpenak, hutsuneak...)
-Saloiak bota, jatorrizko aterpetxoak sortu eta ingurua urbanizatu (espazio hori erabilera publikorako).	Saloiak bota!
-Junta parrokiarekin adostu beharra (haien jarduerak aurrera eramateko lokala).	Frontoia estali gabe, aterpe horiek bai?
	Jabetzan ez!
	Herriko beste edozein eragileren pare.

- ✓ Adostasunak daude honako elementuetan:
 - Saloiak bota behar dira.
 - Elizari ez eman jabetzan, erabileran bai.
- ✓ Honako puntuak adierazi dira, baina desadostasunak edo zalantzak daude beraietan:
 - Elizako aterpea egiteak ez du zentzurik baldin eta frontoian aterpea egiten ez bada.
 - Agian ezin da frontoia egin, orduan proposatzen da estruktura orijinalera bueltatzea eta frontoiko aterpearekin etsi.
 - Udalak elizarekin beste elkarteekin bezala funtzionatzea.

Lotura du
 estalpearekin
 hausnarketa
 honek



3. ESPAZIOA: ESTALPEA

AZALPENA:	BALORAZIOAK (Ekarpenak, hutsuneak...)
Frontoia estali	Aurrera jarraitu Itxura eta estalpe mota <u>berrikusi</u>
Udal eraikinaren gunea estali	Handitzeko aukera

- ✓ Adostasuna dago honako elementuetan:
 - Estalpea beharrezkoa da.
 - Dena den, bisualizazio falta dago, planoetan ez dira udaletxea eta kultur etxea ikusten. Plaza guztia ikusarazi behar da planoetan.
- ✓ Aurrera begira, bi aukera ikusten dira estalpearen lanketa egiten jarraitzeko:
 - **Frontoia estaltzearen proiektua** lehenetsi behar da, atzetik lanketa bat baitu eta orain arte hori lehenetsi baita. Jarraitu behar da oztopoak topatu arte. Zehaztasunak:
 1. Tamaina eta bestelako ezaugarriak eztabaidatu behar dira.
 2. Bateragarria izan behar du ingurune zein plazarekin.
 - **Estalpe bat udal eraikin berrian integratuta egiteko proiektua** sozializatu behar da, ikusarazi; izan ere, gaur egun herrian ez da aukera posible gisa ikusten edo irudikatzen.
 1. Udal batek eman behar dituen zerbitzu guztiak eman behar ditu. Era berean, eraikina tokiz aldatzen bada, aukera berriak ematen ditu plazaren antolaketari begira.



6. INTERBENTZIOEN LEHENTASUNA

Azkenik, bertaratutako herritarrei plazarako proposatu diren esku-hartze desberdinen artean posizionatzeko edota beren ustez lehentasunezkoa izan beharko lukeena markatzeko eskatu zaie.


Bertaratu diren herritarren artean, goizean zehar jasotako ideia guztiak kontuan hartuta, bi norabide posible markatu dira eta horien artean posizionatzea erabaki da.

Honela formulatu dira proiektu edo norabide nagusiak:

- **Udal eraikin berria egitea eta estalpea egiteko proiektua bertan integratuta egotea**
- **Estalpea frontoian egitea eta udal eraikin berria egitea, baina modu independente batean**

Behin hautatzeko norabideak markatuta, partaide bakoitzari gometxa bana eman zaio bere ustez egokiena den proiektua aukeratzeko.

Posizionamendu indibidual horren emaitza jarraian agertzen den koadroan islatzen da:

PLAZA ERABERRITZEKO INTERBENTZIOEN LEHENTASUNAK	
ERAIKIN BERRIA ESTALPEAREKIN	
	
ESTALPEA FRONTOIAN ETA ERAIKIN BERRIA	
	

Ondorioz, jardunaldian partaide izan diren pertsona gehienek lehenetsi dute Udal eraikina eta berari erantsitako estalpea.

Talde eragileko lehen hausnarketan baina, beste kokapen bat lehenetsi zitzaion estalpeari. Bat egiten dute Udal eraikina berritu eta osatu beharraren inguruan. Emaitza horrekin, Talde eragilea bilduko da eta orain arteko edukiak aztertuko ditu, 2017rako lanketa proposamen zehatza eginez.

7. SAIOAREN BALORAZIOA ETA AGURRA

Saioari bukaera emateko partaideei bilera baloratzeko eskatu diegu.

Horretarako, lurrean lerro imaginario bat markatu da, 10eko puntuazio maximotik 0ko puntuazio minimora doana; Aztikerreko teknikaria, erreferentzia gisa, erdian kokatu da. Partaideei eskatu zaie lerro horren gainean kokatzeko, beren sententzioa ondoen islatzen duen puntuazioaren parean.

Partaide gehienak 10-5 tartean kokatu dira. Beste hainbat 0tik gertu kokatu dira.

Ariketak utzi duen irudia honako argazkiaren bidez jasotzen da:

Saioari amaiera eman zaio parte hartu izateagatik eskerrak emanez eta hamaiketakora



2016ko abenduaren 3an, eguerdiko 13:30ean

MILA ESKER GUZTIOI ZUEN EKARPENENGATIK!